



## OSASUNAGATIKO ZERBITZU EGINKIZUNEI UKO EGITEA

Deialdi honen ebazpenean, BOSGARREN atalean, hau esaten da: "3.- Deialdi honetan onartutako zerbitzu-eginkizunari uko egin ahal izango zaio, 2024ko maiatzaren 31ra arte soilik (egun hori barne)."

Hala ere, BEDERATZIGARREN atalak honako hau ezartzen du: "Lekualdatze-lehiaketaren emaitzak behin betiko ematen badu deialdi honen bidez lortu nahi ziren helburuak lortzea, interesduna lekualdatze-lehiaketa bidez lortutako lanpostuan sartuko da, eta zerbitzu-eginkizunaren eskaeran atzera egin duela ulertuko da."

Bi atalen artean kontraesanezko edo gatazkazko egoeraren bat gerta daitekeenez, ohar hau argitaratu da, argitzeko zer egin behar duen eskatzaileak, deialdi honen bidez osasunagatiko zerbitzu eginkizuna ematen bazaio eta, aldi berean, lekualdatze-lehiaketan plaza bat esleitu:

Lehenik eta behin, gogoratu behar da deialdi honetako zerbitzu-eginkizunak ematen zaizkien pertsonen behin betiko destinoak ikasturte-hasierako esleipenetan eskaintzen direla, ez baitituzte plaza horiek beteko (1/3ko murrizketaren kasuan izan ezik). Horregatik, lekualdatze-lehiaketan esleitutako plaza hori datorren ikasturtean bete nahi dituzten esleipendunek horren berri eman beharko digute eta zerbitzu-eginkizunari uko egin, BOSGARREN ebazpen-zatian ezarritako epean (maiatzaren 31 baino lehen).

Horretarako, atal bat prestatuko da Tramitagunean. Ondorengo uko-egiteak kontuan hartuko dira, baldin eta lekualdatze-lehiaketaren behin-behineko ebazpena eta behin betikoa desberdinak badira.

Aurten jasotako eskaera kopurua dela eta, litekeena da lekualdatze-lehiaketaren behin-betiko ebazpena ez argitaratzea maiatzaren 31a baino lehen. Horregatik, deialdi honen bidez emandako zerbitzu-eginkizuna lortzen duten pertsonak lekualdatze-lehiaketaren behin-behineko ebazpena kontuan hartu beharko dute eta bata edo bestea aukeratu. Maiatzaren 31az geroztik jasotako uko egiteei erantzuteko, lekualdatze-lehiaketaren

## RENUNCIA A LA COMISIÓN DE SERVICIOS POR SALUD CONCEDIDA

En la Resolución por la que se convoca la presente convocatoria, en su apartado QUINTO se dice que "3.- Sólo se admitirá la renuncia a la comisión de servicios concedida, hasta el día 31 de mayo de 2024 (inclusive)."

Sin embargo, el resuelvo NOVENO establece que "En el caso de que el resultado del concurso de traslados proporcione con carácter definitivo la consecución de los objetivos que se pretendían obtener a través de esta convocatoria, la persona interesada se incorporará a su puesto obtenido por concurso de traslados, considerándose desistida la solicitud de comisión de servicios."

Al poder darse alguna situación contradictoria o de conflicto entre ambos apartados, se emite la presente nota a efectos de aclarar cuáles son las acciones necesarias a realizar por la persona solicitante en caso de que se le conceda la comisión de servicios de salud mediante la presente convocatoria y sea a su vez adjudicataria de una plaza en el concurso de traslados:

En primer lugar, cabe recordar que los destinos definitivos de las personas a las que se les concede la comisión de servicios de la presente convocatoria son ofertados en las adjudicaciones de comienzo de curso, ya que no van a ser desempeñados por las mismas (salvo en el caso de la reducción de 1/3). Es por ello, que las personas adjudicatarias en el concurso de traslados que deseen ocupar dichas plazas el curso que viene deberán comunicármolo y renunciar a la comisión de servicios en el plazo establecido en el resuelvo QUINTO (antes del 31 de mayo).

Para ello se habilitará un apartado en Tramitagunea. Se atenderán las renunciaciones posteriores en los casos de que la resolución provisional del concurso de traslados difiera de la definitiva.

Debido al número de solicitudes recibidas este año, es probable que la resolución definitiva del concurso del traslados no se publique con anterioridad al 31 de mayo. Es por ello, que las personas que obtengan la comisión de servicios concedida mediante esta convocatoria tendrán que atender a la resolución provisional del concurso de traslados y optar por una u otra. Solo se atenderán renunciaciones posteriores al 31 de mayo en caso de que



behin-behineko eta behin-betiko emaitzak desberdinak izan beharko dira kasu bakoitzean.

Adierazitako epean uko egiten ez bada, osasun-arrazoiengatik emandako zerbitzu-eginkizunaren alde egiten duela ulertuko da, eta, ondorioz, lekualdatze-lehiaketan esleitutako plaza 24-25 ikasturte-hasierako esleipenetan eskainiko da.

el resultado entre la provisional y la definitiva del concurso de traslados sea distinto en cada caso.

De no ejercer la renuncia en el plazo indicado, se entenderá que opta por la comisión de servicios concedida por motivos de salud, y por consiguiente, la plaza adjudicada en el concurso de traslados será ofertada en las adjudicaciones de Comienzo de Curso 24-25.

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de abril de 2024  
Vitoria-Gasteizen, 2024ko apirilaren 17an.

**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARITZA**  
**DIRECCIÓN DE GESTIÓN DE PERSONAL**